



IRAGARKI ZAHARRAK BERTSOTAN


Ez pentsa iragarkiak bertsotan egitea oraingo askakuntza denik: joan den mendean, aldizkarietan (prentsa idatzian) iragarkiak bertsotan jartzeko ohitura bazen. Hara hemen horietako batzuk!



Iturria:
Argia astekaria

FANDERIA – EZ MERKENAK, BAI ONENAK! (1963)

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak.
Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak.
Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak.
Oiek guziak berekin ditu Fanderiako pentsuak!



Doinua:
Dama gazte bat adoratzeko
Zortziko handia



1969ko epaillak 23

TOMAS EIZMENDI'REN JATETXEA (1963)

Zumai erritik metro gutxira, ibai ertzean par-irriz,
etxe polit bat zure zai dago euskal kutsu zoragarritz.
Arrai, barazki, aragi eder; nai dan aukera janariz,
jattetxe au bein probatzen duna laister azaltzen da berriz.



Doinua:
Naparruatik ardo karraio I
Zortziko handia